-25. artikuluaren 2. atalari idazketa berria eman zion Arrazionalizazio lege horrek, eta gai-zerrenda bat osatu zuen, non udalek berariazko eskumenak egikarituko baitzituzten. Gai horien artean, 25.2. artikuluaren c) atalak udalek, besteak beste, ondorengokonpetentziak jasotzen ditu:"bere titulartasuneko ekipamenduak ", m) apartaduan ondorengoak:kultura eta kultura-ekipamenduak sustatzea".

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

-Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikuluak udalerrien eskumen propioak arautzen ditu eta horiek zein esparru materialetan erabili ahal izango dituzte. Hain zuzen ere, 2. atalean:" Espazio publikoetan bizikidetza-harremanak antolatzea eta kudeatzea".Lege horren 3. atalean ondorengoa jasota dago:"Espazio publikoetan bizikidetza harremanak antolatzea eta kudeatzea".25)apartaduan:"Gizarte garapena".28) apartaduan:"udal-ondarea kudeatzea eta ondare horren erabilera, zertarakoa, kontserbazioa eta mantentze lanak arautzea".

**Erakundeen alde udal jabariaren erabilera honela dago arautua:**

-Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak, bere 72.artikuluan:"Toki-korporazioek elkarteen garapena bultzatzen dute, auzotarren interes orokorrak edo sektorialak defendatzeko, beren jarduerei buruzko informazio zabalena ematen diete, eta, ahal duten neurrian, baliabide publikoak erabiltzen eta jarduerak egiteko dirulaguntzak eskuratzen laguntzen diete, eta korporazioaren kudeaketan parte hartzea bultzatuko dute, 69. artikuluko 2. zenbakiaren arabera".

-Bestalde, antzera dio Toki-erakundeen Araubidea eta Funtzionamendua Antolatzeko Erregelamenduak, bere 233.artikuluan: "Las asociaciones a las que se refiere el artículo anterior podrán acceder al uso de medios públicos municipales, especialmente locales...."

**Erabilera mota eta ahalbideraketa,** ondorengo arautegian dago xedatuta:

-Toki Entitateen Ondasunen Araudiko 1 eta 6 arteko artikuluak honela diote:

1.artikulua: ondasunen kontzeptua eta sailkapena :

"1. Toki-erakundeen ondarea beren ondasun, eskubide eta akzio guztiek osatuko dute.

2. Toki-erakundeen ondasunen araubidea honako hauek arautuko dute:

a) Estatuak toki-araubidearen arloan duen oinarrizko legeriak.
b) Administrazio publikoen ondasunen araubide juridikoa arautzen duen Estatuko oinarrizko legeriak.
c) Autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan emandako legeak.
d) Aurreko paragrafoetan aipatutako legeriarik ez badago, toki-araubidearen eta ondasun publikoen arloan oinarrizkoa ez den Estatuko legediak.
e) Erakunde bakoitzaren ordenantzek.
f) Ordezko gisa, ordenamendu juridiko, administratibo eta zibileko gainerako arauak.

3. Nolanahi ere, Estatuko zuzenbidea aplikatuko da, Konstituzioaren 149.3 artikuluaren

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

arabera.

2.artikulua:

1. Toki-erakundeen ondasunak honela sailkatuko dira: jabari publikoko ondasunak eta ondare-ondasunak.
2. Jabari publikoko ondasunak erabilera edo zerbitzu publikokoak izango dira.
3. Herri-ondasuntzat joko dira, herri-jabarikoak izanik, ondasun horien aprobetxamendua auzotarren erkideari badagokio.
4. Herri-ondasunak udalerrienak eta toki-erakunde txikienak baino ezin izango dira izan.

3.Artikulua:

1. Tokiko erabilera publikoko ondasunak dira bideak, plazak, kaleak, pasealekuak, parkeak, iturri eta urmaeletako urak, zubiak eta aprobetxamendu edo erabilera orokorreko gainerako herri-lanak, baldin eta horien kontserbazioa eta polizia toki-erakundearen eskumenekoak badira.
2. Lurzoruak planak onartzen direnetik hirigintza-xedearekin duen loturari kalterik egin gabe, hirigintza-legeriaren arabera administrazio jarduleari eskubidea lagatzen zaion unean lotuko zaizkio higiezinak erabilera publikoari.

4.artikulua:

Zerbitzu publikoko ondasunak dira toki-erakundeen erantzukizuneko helburu publikoak betetzera zuzenean bideratutakoak, hala nola udaletxeak, probintzia-jauregiak eta, oro har, horietako eraikinak, hiltegiak, merkatuak, lonjak, ospitaleak, ospitaleak, museoak, mendi katalogatuak, eskolak, hilerriak, garraio-elementuak, igerilekuak eta kirol-zelaiak, eta, oro har, zuzenean zerbitzu publiko edo administratiboak ematera bideratutako beste edozein ondasun.

5.artikulua:

Herri-ondasunak eta jabari publikoko gainerako ondasunak besterenezinak, enbargaezinak eta preskribaezinak dira, eta ez dute inolako zergarik.

6.artikulua:

1. Ondare-ondasunak edo norberaren ondasunak dira, toki-erakundearen jabetzakoak izanik, erabilera publikorako ez direnak edo zerbitzu publikoren bati atxikita ez daudenak eta erakundearen altxorrerako diru-iturri izan daitezkeenak.

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

2. Ondare-ondasunek berariazko legeria dute, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

-Toki Entitateen Ondasunen Araudiko 75. artikuluak honako erabilera motak bereizten ditu, herri jabariari dagokionean:

• Jabari publikoko ondasunak erabiltzean, honako hauek hartuko dira kontuan:

1. Erabilera erkidea, herritar guztiei berdin dagokiena, batzuen erabilerak ez dezan eragotzi gainerako interesdunen erabilera, eta aintzat hartuko da:

a) Orokorra, inguruabar berezirik ez dagoenean. b) Berezia, baldin eta izaera horretako inguruabarrak badaude arriskugarritasunagatik, erabileraren intentsitateagatik edo antzeko beste edozeinengatik.

2. Erabilera pribatiboa, jabari publikoaren zati bat okupatzeak osatzen duena, gainerako interesdunek erabilera mugatu edo bazter dezaten.

3. Erabilera arrunta, eragiten dion jabari publikoaren erabilera nagusiarekin bat datorrena.

4. Erabilera anormala, helburu horrekin bat ez badator.

-Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92ak honela dio:

1.- Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei zuzenean emango zaizkie baimenak, salbu eta, edozein arrazoirengatik, eskatzaile horien kopurua mugatuta badago. Kasu horretan, lehia-erregimenean emango dira baimenak, eta hori bidezkoa ez bada, eskatzaileek baldintza berezirik baloratu behar ez dutelako, zozketa bidez, baldin eta beste zerbait ezarri ez bada baldintza horietan.

2. Baimenak ez dira eskualdatuko, baldin eta baimen-emate horretarako baimenduaren inguruabar pertsonalak kontuan hartu behar badira edo baimen-kopurua mugatuta badago, salbu eta baimen horiek arautzen dituzten baldintzek eskualdatzea onartzen badute.

3. Baimenak aldi jakin baterako eman beharko dira. Gehienezko iraupena, luzapenak barne, lau urtekoa izango da.
4. Administrazio emakidatzaileak edozein unetan ezeztatu ahal izango ditu baimenak, interes publikoko arrazoiak direla medio, kalte-ordainerako eskubiderik sortu gabe, baldin eta ondoren onartutako baldintza orokorrekin bateraezinak badira, jabari

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

publikoan kalteak eragiten badituzte, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea eragozten badute edo erabilera orokorra kaltetzen badute.
5. Baimenak doakoak izan ahal izango dira, kontraprestazio edo baldintzekin eman ahal izango dira, edo Estatuko jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasaren mende egon ahal izango dira – tasa hori Estatuko eta Tokiko Tasen eta Ondare Prestazio Publikoen Lege Araubidea aldatzeko eta horiek berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legearen I. tituluko VIII. kapituluan araututa dago –, edo haien arau berezietan aurreikusitako tasen mende.
Ez dute tasarik ordaindu beharko baldin eta jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak ez badakarkio onura ekonomikorik baimendutako pertsonari, edo, erabilera edo aprobetxamendu hori egonda ere, erabilera edo aprobetxamenduak onura hori deuseztatzen edo hutsaltzen duten baldintzak edo kontraprestazioak badakartza onuradunarentzat. Aurreko lerrokadan aurreikusitako kasuetan, horren berri emango da baimenaren baldintza-agirietan edo klausuletan.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako baimenen eskatzaileari, aplikagarri zaion araubide ekonomikoa edozein dela ere, ondasunaren erabileraren bermea eskatu ahal izango zaio, egoki iritzitako moduan, bai eta hura lehengoratzearena edo konponketarena ere, edo, aldaketaren kasuan, kalteen ordaina. Sortutako gastuen kobrantza, emandako bermea baino handiagoa denean, premiamendu-bidez egin ahal izango da.
7. Baldintza orokorrek edo partikularrek jaso ditzaketen gainerako alderdiak alde batera utzita, herri-jabariko ondasunak eta eskubideak erabiltzeko baimena emateko akordioak honako hauek jasoko ditu, gutxienez:
a) Ondasuna edo eskubidea erabiltzeko araubidea.
b) Baimenaren araubide ekonomikoa.
c) Eman beharreko bermea, hala badagokio.
d) Kontserbazio- eta mantentze-gastuak, zergak, tasak eta gainerako tributuak bere gain hartzea, bai eta ondasuna izaeraren arabera erabiltzeko eta jasotzen den egoeran entregatzeko konpromisoa ere.
e) Ondasunaren erabilerak edo haren gainean egin beharreko jarduerak eskatzen dituen lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzeko konpromisoa.

f) Okupazioaren ondoriozko erantzukizuna bere gain hartzea, eta, hala badagokio, dagokion aseguru-poliza, banku-abala edo nahikoa den beste berme bat formalizatzeko betebeharra aipatzea.
g) Interes publikoko arrazoiengatik, alde bakarreko errebokazioa onartzea, kalte-ordainetarako eskubiderik gabe, artikulu honetako 4. paragrafoan aurreikusitako kasuetan.

h) Baimena ematen duen ministerioak edo erakundeak baimenaren xede den ondasuna ikuskatzeko ahalmena erreserbatzea, baimenaren baldintzen arabera erabiltzen dela bermatzeko.

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

i) Luzapen- eta subrogazio-epea eta -araubidea; kasu guztietan, aldez aurreko baimena beharko da.

j) Azkentzeko arrazoiak.

*Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 74-77.artikulua.eta* Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92. artikulua kontuan hartuta, eskatutako okupazioa legitimatuta dago.

**Organu eskuduna: Gobernu Batzarra.** Horrela dio 2019 ko uztailaren 16an, 1228 Alkate Kekretuak:"Alkatetzak eskuordetzea legeriak ematen dizkion ondorengo eskumenak Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrari:
d)Lokalak doan lagatzea, edo jabari publikoko lokalen erabilera baimentzea, urtebeteko epea gaindituz gero."

2023ko apirilaren 26an kontuhartzaileak txostena egin du. Bertan, ondorioztatzen du txosten teknikoak justifikatu behar dutela hainbat gastu, printzipioz erabileari egotsi behar zaizkienak. Bestalde, asegurua exijitu behar zaiola, hamabost eguneko epean ere, aipatzen du.
2023ko maiatzaren 3an txosten teknikoak justifikatzen du hainbat gastu udalak bereganatzea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

## ERABAKI DU

**<u>LEHENA</u>.-** Onartzea Gipuzkoako S.O.S Arrazakeria Elkarteari demaniozko baimena ematea helbide honetan Rondilla 34an dagoen lokala erabiltzeko.

Lokal hau horrela dago deskribituta udal ondare inbentarioan:

"*Edificio en planta baja , 3 pisos y entreplanta de 1.112 metros cuadrados.Su estructura está cimentada mediante mampostería, excepto la nueva fachada y escalera principal, cuyos cimientos son de placa. Los muros de carga de mampostería con un entramado a base de forjado de viguetas semiresistentes y bovedilla de hormigón con cerramientos exteriores con gruesos muros de mampostería enfoscados y pintados . Está cubierta a 4 aguas con teja plana, impermeabilizada de poliester, con fibra de vidrio y lucernario con teja plana de vidrio. La división interior se realiza mediante muro de ladrillo esfoscado y pintado, las soleras son de hormigón y el pavimento es generalmente terrazo, excepto en*

*el vestíbulo principal donde se utiliza mármol. Los techos en espacios cerrados, están compuestos por escayola lisa y planchas acústicas en los pasillos y vestíbulos plancha lisa de escayola pintada.*

*Título de adquisición:Escritura pública de compraventa otorgada ante notario el 23 de marzo de 1851.*

*Inscrito en el registro: Tomo 1.521, libro 217, Folio 98, Finca 10.603 Inscripción 1.*
*Calificación: Equipamiento comunitario.*

*Naturaleza del dominio: Servicio Público."*

Kasu honetan, eskatutako lokala lehenego solairukoa da, Eusko Jaurlaritzak erabiltzen duena, "familia-elkargunea" programa garatzeko. Horretarako, zegokion hitzarmena sinatu zen 2018ko abenduaren 4an. Hirugarrengo klausulan erabili beharreko asteko egunak eta orduak arautu ziren. Sos arrazakeriak eskatutako eguna eta ordutegia ez dago bertan sartuta, beraz, era konpartituan erabiltzea posible izango litzateke Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren baimenik gabe.

**BIGARRENA.-** Zehaztea demaniozko baimen hori ondorengo programa garatzeko dela: atzerritartasunaren alorreko aholkularitza juridikoa ematea kalteberetasun egoeran dauden etorkinei eta profesionalei herri-administrazioetakoei eta hirugarren sektorekoei, etorkinekin inklusio-prozesuetan dihardutenn heinean. Hori, xedetzat hartuta atzerritarrei erregularizazioa erraztea, bai eta prebentzio-lana egitea gerora irregulartasun-egoerarik gerta ez dadin, familiako bizitzaren alde eginda betiere.
Zerbitzua bi modalitateetan ematen da: Aurrez aurreko arreta (gizarte-erakundeak eta abokatuen elkarteetako Saje-txandetako legelariak) eta Bertaratu beharrik gabeko arreta –Postaz /telefonoz- (Biltzen).

**HIRUGARRENA.-**Erabileraren ezaugarri hau finkatzea: urte beterako emango da eta beste hiru urtez luzatu ahal izango da, urteko berariazko akordioa lortu ondoren.

Ondorengo ordutegian erabili izango da:Azteazkenetan, 10:00etatik 14:00arte

Era berean,dohain izaeraz ematen da.

**LAUGARRENA.-**Elkarteak bermatuko ditu zerbitzua emateko beharrezkoak diren bulego materiala,gailu elektronikoak eta bestelako behar espezifikoak. Baita arreta emango duen profesionala ere.

**BOSGARRENA.-** Gizarte Zerbizuko Teknikariaren txostena kontutan izanik, udalaren kontura izango dira lokala mantentze eta konpontzeari edo birgaitzeari buruzko gastu txikiak. Zerbitzua eskaini izateko oinarrizko ekipamenduak bermatuko ditu udalak, eta

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

sortutako hornidura guztiak ere, bere gain hartuko ditu (zerbitzua mantentzeko egingo duen lankidetza-ekarpena):indarra, beroketa sistema, udalwifi, bulego mahaia, besaulkia eta materiala gordetzeko armairua.

Udalak eskubidea izango du ikuskapenak egiteko baimenduak dituen eginbeharrak zuzen betetzeari dagokienez. Era berean, Udalak ahalmena izango du baimenduari ebazpen honen, erabileraren eta legearen arabera betetzea dagokiona galdatzeko.

a) Debekatuta daude honako jarduera hauek:

- Erabilitako lokalaren barruan, eta elkartearen autonomia errespetatuz, ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin; beraz, debekatuta dago indarkeriazko edozein ekintza egitea, edo norbanakoak edo taldeak diskriminatzea, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, sexu-orientazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.
- Irabazi-asmoekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.
- Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera, bereziki gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsutzat jotzen direnak.

b) Besteak beste, baimenduak ondorengo betebehar hauek izango ditu:

- Erabilera-ordutegiek dirauten bitartean, bizilagunei enbarazurik ez eragitea eta zonako lasaitasuna ez nahastea, indarrean dagoen araudian ezarritako neurri egokiak hartuz.

- Lokalean hirugarrenen inolako merkataritza-publizitaterik ez egitea.

- Esleitutako espazioak errespetatzea, bai eta lokala partekatzen duten beste erakunde edo elkarte batzuei ere, haien jardueren garapen normala oztopatu gabe.

- Erabilera komuneko espazioen helburua eta xedea errespetatzea.

- Elkarte edo kolektiboek modu arduratsuan zaindu beharko dituzte erabilera esklusiboko eta erabilera partekatuko lokalak, bai eta, oro har, higiezin osoa ere, hala badagokio, baita altzariak ere, eta beren kideek eta erabiltzaileek, ekintzaz edo ez-egitez, eragin ditzaketen kalteen erantzukizuna izango dute, berehala eta Udalaren baimenarekin, beharrezko konponketak eginez. Erakunde onuradunari dagokio baimenean sartutako ondasun higigarriak mantentzea eta konpontzea.

- Esleitutako espazioak osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokietan erabiltzeko gordetzea.

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

- Lokaleko eta eraikineko giltzak zaintzea eta ixtea, erabiltzen duen azken erakundea denean, erabilera-baimenak besterik xedatzen ez badu. Aldi berean, baimendutako espazioen erabilera egokia zainduko dute, eta erabiltzaileen zaintza eta kontrola egingo dute.

- Esleitu zaion espazioaren erabilera ez lagatzea baimenduta ez daudenei.

- Sor daitekeen edozein anomalia, gorabehera edo arazo berehala jakinaraztea Tolosako Udalari. Horretarako, erreferentziazko Departamentuarekin harremanetan jarriko da elkarte edo kolektiboaren ordezkaria/solaskidea.

- Tolosako Udalari itzultzea emandako baimena iraungi edo ezeztatu ondoren lagapenaren xede diren espazio eta ondasunen erabilera, jatorrizko egoeran, erabilerak eragindako higadura izan ezik.

- Udalari uneoro baimena ematea, indarrean dagoen araudia eta erabilera edo baimentzeko erabakia betetzen direla zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-ahalmena balia dezan, guneetarako sarbidea erraztuz eta eskatzen den informazioa eta dokumentazioa emanez.

- Tabakoa eta/edo edari alkoholdunak eta osasunerako kaltegarriak diren beste substantzia batzuk (drogak, substantzia sorgorgarri psikotropikoak) kontsumitu eta haiek kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik ez instalatzea.

**SEIGARRENA.**- Ezartzea baimenaren indarraldia bukatutakoan, baimenduak kontserbazio eta erabilera egokian itzuli beharko duela eraikuntza.

**ZAZPIGARRENA.**- Agintzea baimena duenak erantzun egin beharko duela egiten duen jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik (dela pertsonei dela ondasunei egindakoak). Alde horretatik, Udal honi nahiz hirugarrengoei egindako kalteengatik erantzungo du. Horretarako, erantzukizunezko-poliza egin behar du higiezinei, pertsonei edo hirugarren batzuei egindako kalteen aurrean erantzuteko eta gutxieneko kopurua 300.000 eurokoa izango da.
Aseguru poliza hauek hitzartuta dituztela justifikatu beharko ditu, bai eta dagozkion ordainagirien ordainketak ere, erabileraren baimena eman eta hamabost laneguneko epean. Horrela ez balitz, erabilera baimena bertan behara geldituko da eta elkarteak hustu egin beharko du loaka eta giltzak itzuliko dizkio udalari.

**ZORTZIGARRENA.**-Baimendunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharretakoren bat edo legez dagozkien betebeharrak betetzen ez baditu, baimena indarrik gabe geratuko dela ezartzea.

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

**BEDERATZIGARRENA.-** Baimenduak Udal jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa guztiz errespetatuko du.

**Xabier Balerdi Tolosa zinegotzia sartu da.**

## 6. ONARTZEA ZEHAR ERREFUXIATUEKIN ELKARTEARI DEMANIOZKO BAIMENA EMATEA ZULOAGA-TXIKI ATERPETXEA ERABILTZEKO.

Zehar Errefuxiatuekin erakundeak Zuloaga- Txiki Aterpea erabiltzeko baimena eskatu du.Izan ere, aurreko hitzarmenaren iraupena 2023ko martxoaren 31artekoa da.

Eskariarekin ondoko dokumentazioa aurkeztu du:

- Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua.

- Elkarte edo kolektiboak azken urtean egindako memoria.

- Jardueren proiektua, ondoko atal hauekin:
  - Lokala erabiltzeko beharrak edo arrazoiak
  - Aurreikusitako jardueren deskribapena, bai erakundearen antolaketa-beharretatik eta barne-funtzionamendutik eratorritakoak, bai kideen onurarako zerbitzuak ematea dakartenak eta/edo kanpoko proiekzio publikoa dutenak.
  - Gutxi gorabeherako deskribapena, aurkeztutako jarduera-proiektuaren arabera,lokalaren ezaugarriei eta kokalekuari, erabilera zehatzei eta lokalaren espazio eta instalazioetan aurreikusitako erabilera-ordutegiei buruzkoa.
  - Elkarteak edo kolektiboak aurreikusitako jarduerak garatzeko dituen baliabide materialak eta giza baliabideak.
  - Lokalaren erabilera epea.
  - Elkarteak lokala mantentzeko erabiliko duen aurrekontua, bere kasuan.
  - Azkeneko ekitaldian jasotako diru-laguntzen zerrenda, zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerak adierazita.

• Eskatzen den proiektuan deskribatutako jarduera eta zerbitzuen erabiltzaile- kopurua aurreikustea.

Eskatutako baimen eta lagapen mota garatu nahi diren jardueretara egokitzen dela justifikatzea.

2023ko urtarrilaren 23an, Gizarte Zerbitzuen eta Osasun Saileko buruak txosten teknikoa egin du.

**Txosten juridikoa**:

Tolosako Udala ondoren aipatzen den ondarearen jabea da:

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

*"Zuloaga-Txiki Aterpetxea".Plenoak, 1988ko irailaren 23an D.Fidel Yarza Zabalarengandik bereganatu zuena. Eskritura publikora helarazi zen 1.988ko apirilaren 11an, Felipe Pou Ampuero Notarioaren aurrean, 1013 protokoloarekin. Montezku 13an kokatua dago, eta landa izaerako eraikina da.*

*Eraikuntzak ondorengo solairuak ditu: Beheko solairua, lehenengoa eta teilatupeko solairua, eranskina duela. Estalpeko azalera:158,4 metro karratu. Garatutako azalera:439,2 metro karratu.Jabetza Erregistroan ondorengo marka du:1.437tomoa, 203 Liburua,198 Folioa, 911 Finka, 7.Inskripzioa."*

Inbentarioan patrimoniala izaera izan arren, esan behar da zerbitzu publiko bat bete izan duela.Izan ere, gutxienez 1999tik herriko albergea izan da.Beraz, zalantzatik gabe, ondare hau zerbitzu publikora gebirakoa da.

Aplikagarria den araudia:

Herri Ondereei buruzko 1372/86 Erreglamendua, 1986ko ekianaren 13koa.
Administrazio Publikoen ondareei buruzko 33/2003 Legea, azaroaren 3koa.

Arautegi hauen arabera: Zerbitzu publikoko ondareak hauek dira:

Herri Ondarei buruzko 1372/86 Erreglamendua, 1986ko ekainaren 13koa (4.artikulua):

"Son bienes de servicio público los destinados directamente al cumplimiento de fines públicos de responsabilidad de las Entidades locales, tales como Casas Consistoriales, Palacios Provinciales y, en general, edificios que sean de las mismas, mataderos, mercados, lonjas, hospitales, hospicios, museos, montes catalogados, escuelas, cementerios, elementos de transporte, piscinas y campos de deporte, y, en general, **cualesquiera otros bienes directamente destinados a la prestación de servicios públicos o administrativos.**"

Herri Ondareei buruzko 1372/86 Erregelamendua, 1986ko ekainaren 13koa (75.artikulua):

"*En la utilización de los bienes de dominio público se considerará:*

*1.º Uso común, el correspondiente por igual a todos los ciudadanos indistintamente, de modo que el uso de unos no impida el de los demás interesados, y se estimará:*

*a) General, cuando no concurran circunstancias singulares.*

*b) Especial, si concurrieran circunstancias de este carácter por la peligrosidad, intensidad del uso o cualquiera otra semejante.*

*2.º Uso privativo, el constituido por la ocupación de una porción del dominio público, de modo que limite o excluya la utilización por los demás interesados.*

*3.º Uso normal, el que fuere conforme con el destino principal del dominio público a que afecte.*

*4.º Uso anormal, si no fuere conforme con dicho destino."*

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

Administrazio Publikoen ondareei buruzko 33/2003 Legea, azaroaren 3koa. (85 artikulua):

"Tipos de uso de los bienes de dominio público.

*1. Se considera uso común de los bienes de dominio público el que corresponde por igual y de forma indistinta a todos los ciudadanos, de modo que el uso por unos no impide el de los demás interesados.*

*2. Es uso que implica un aprovechamiento especial del dominio público el que, sin impedir el uso común, supone la concurrencia de circunstancias tales como la peligrosidad o intensidad del mismo, preferencia en casos de escasez, la obtención de una rentabilidad singular u otras semejantes, que determinan un exceso de utilización sobre el uso que corresponde a todos o un menoscabo de éste.*

*3. Es uso privativo el que determina la ocupación de una porción del dominio público, de modo que se limita o excluye la utilización del mismo por otros interesados."*

Kasu honetan, erabilera berezitaz hitzegiten ari gara.

Administrazio Publikoen ondareei buruzko 33/2003 Legea, azaroaren 3koa:

*"2. El aprovechamiento especial de los bienes de dominio público, así como su uso privativo, cuando la ocupación se efectúe únicamente con instalaciones desmontables o bienes muebles, estarán sujetos a autorización o, si la duración del aprovechamiento o uso excede de cuatro años, a concesión." (86.2 artikulua)*

*92.3. artikulua: "Las autorizaciones habrán de otorgarse por tiempo determinado. Su plazo máximo de duración, incluidas las prórrogas, será de cuatro años.*

*92.4. artikulua:" Las autorizaciones podrán ser revocadas unilateralmente por la Administración concedente en cualquier momento por razones de interés público, sin generar derecho a indemnización, cuando resulten incompatibles con las condiciones generales aprobadas con posterioridad, produzcan daños en el dominio público, impidan su utilización para actividades de mayor interés público o menoscaben el uso general."*

*92.5.artikulua:" Las autorizaciones podrán ser gratuitas, otorgarse con contraprestación o con condiciones, o estar sujetas a la tasa por utilización privativa o aprovechamiento especial de bienes del dominio público estatal regulada en el capítulo VIII del título I de la Ley 25/1998, de 13 de julio, de Modificación del Régimen Legal de las Tasas Estatales y Locales y de Reordenación de las Prestaciones Patrimoniales de Carácter Público, o a las tasas previstas en sus normas especiales."*

Kasu honetan demaniozko baimena da legitimatutako figura juridikoa eta gehienez lau urterako izan daiteke.

137.4 artikulua:" Se podrá acordar la adjudicación directa en los siguientes supuestos":

*a) Cuando el adquirente sea otra Administración pública o, en general, cualquier persona jurídica de derecho público o privado perteneciente al sector público.*

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

*A estos efectos, se entenderá por persona jurídica de derecho privado perteneciente al sector público la sociedad mercantil en cuyo capital sea mayoritaria la participación directa o indirecta de una o varias Administraciones públicas o personas jurídicas de Derecho público.*

*b) Cuando el adquirente sea una entidad sin ánimo de lucro, declarada de utilidad pública, o una iglesia, confesión o comunidad religiosa legalmente reconocida.*

*c) Cuando el inmueble resulte necesario para dar cumplimiento a una función de servicio público o a la realización de un fin de interés general por persona distinta de las previstas en los párrafos a) y b).*

Beraz, zuzeneko erabilera (kasu honetan, zuzenean CEAR elkarteari erabilera baimena zuzenekoa ematea) legitimatuta dago.

Aurreko guztia kontuan hatuta, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92. artikulua, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.-** Onartzea Zehar Erefuxiatuekin Elkarteari demaniozko baimena ematea Zuloaga-Txiki aterpetxea erabiltzeko.

Lokal hau horrela dago deskribituta udal ondare inbentarioan:

*"Zuloaga-Txiki Aterpetxea".Plenoak, 1988ko irailaren 23an D.Fidel Yarza Zabalarengandik bereganatu zuena. Eskritura publikora helarazi zen 1.988ko apirilaren 11an, Felipe Pou Ampuero Notarioaren aurrean, 1013 protokoloarekin. Montezku 13an kokatua dago, eta landa izaerako eraikina da.*

*Eraikuntzak ondorengo solairuak ditu: Beheko solairua, lehenengoa eta teilatupeko solairua, eranskina duela. Estalpeko azalera:158,4 metro karratu. Garatutako azalera:439,2 metro karratu.Jabetza Erregistroan ondorengo marka du:1.437tomoa, 203 Liburua,198 Folioa, 911 Finka, 7.Inskripzioa."*

Lokal honek atxikituta duen ekipamendu zerrenda hau da:

| | |
|---|---|
| **EGURREZKO MAHAIA 200X80**<br><br>MESA DE MADERA 200X80 | 2 |
| **EGURREZKO MAHAIA**<br><br>MESA DE MADERA | 13 |
| **EGURREZKO MAHAIA 220X90** | 4 |

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

| | |
|---|---|
| MESA DE MADERA 220X 90 | |
| **EGURREZKO AULKIAK**<br><br>SILLAS DE MADERA | 72 |
| **EGURREZKO BANKUAK 200X35**<br><br>BANCO CORRIDO MADERA 200X35 | 2 |
| **EGURREZKO BANKUAK 220X30**<br><br>BANCO CORRIDO MADERA 220X30 | 4 |
| **ALTZAIRU HERDOLGAITZEZKO HARRASKA**<br><br>FREGADERO ACERO INOXIDABLE | 1 |
| **ALTZAIRU HERDOLGAITZEZKO GAINA 132X70X90**<br><br>ENCIMERA ACERO INOXIDABLE 132X70X90 | 1 |
| **ALTZAIRU HERDOLGAITZEZKO HARRASKA, BI SAKONUNE 340X70X90**<br><br>FREGADERO ACERO INOXIDABLE, 2 SENOS340X70X90 | 1 |
| **ALTZAIRU HERDOLGAITZEZKO GAINA, ZULO BAT 120X70**<br><br>Encimera fregadero 1 seno 120X70 | 1 |
| **ALTZAIRU HERDOLGAITZEZKO GAINA 70X75**<br><br>Encimera acero inoxidable 70X75 | 1 |
| **ALTZAIRU HERDOLGAITZEZKO GAINA 100X80**<br><br>Encimera acero inoxidable 100X80 | 1 |
| **8 ATEDUN EGURREZKO OFIZINAKO ARMAIRUA**<br><br>Armario madera 8 puertas Oficina | 1 |
| **ALTZAIRU HERDOLGAITZEZKO KONKETA PEDALDUNA**<br><br>LAVAMANOS DE PEDAL ACERO INOXIDABLE | 1 |
| **EGURREZKO LITERAK 196X101X146**<br><br>LITERAS MADERA 195X101X146 | 15 |
| **EGURREZKO MESANOTXEA 47X34** | 2 |

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

| | |
|---|---|
| MESILLAS DE MADERA 47X34 | |
| **GARBIGAILUA**<br><br>LAVADORA | 2 |
| **JOLAS PARKEA** (egoera txarrean)<br><br>JUEGOS RARQUE INFANTIL (en mal estado) | |
| **SUA REPAGAS**<br><br>COCINA REPAGAS | 1 |
| **KORRONTE HARGUNEA**<br><br>ACOMETIDA ELECTRICA | 1 |
| **LEHORGAILUA**<br><br>SECADORA | 1 |
| **EGURREZKO PIC-NICeko MAHAIA 200X 75** (Egoera txarrean)<br><br>MESA PIC-NIC MADERA 200X75 (En mal estado) | 8 |
| **KAREHARRIZKO ITURRIA, PARKEAN (**egoera txarrean)<br><br>FUENTE FUNDICION 1 CAÑO BASE PIEDRA CALIZA PARQUE (En mal estado) | 1 |
| **ZABORRONTZI BOROBILA, EGURREZKO POSTEAREKIN, PARKEA**<br><br>PAPELERA CILINDRICA POSTE MADERA PARQUE | 3 |
| **3 PIEZAKO METALEZKO PIBOTEAK , PARKEA**<br><br>CONJUNTO DE 3 PIVOTES METAL PARQUE | 1 |

**BIGARRENA**.-Demaniozko baimen hori ondorengo proiektua garatzeko ematea: Errefuxiatuei lehen arreta programa garatzea.

**HIRUGARRENA.**-Erabileraren ezaugarri hau finkatzea: urte beterako emango da eta beste hiru urtez luzatu ahal izango da, urteko berariazko akordioa lortu ondoren.
Era berean,dohain izaeraz ematen da.

**LAUGARRENA**.-Deskribatutako programa exekutatzeak sortuko dituen aktibitateen gastu guztiak baimenduari ezartzea. Era berean, bere kargura izango dira elektrizitate-ur eta gas-kontsumoak, zabor gastuak eta gainerakoak.

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

**BOSGARRENA**.- Baimenduaren ardurak izatea, lokala kontserbatzea eta zaintzea eta egoki diren konponketa handi nahiz txikiak egitea hori horrela mantentzeko.

Udalak eskubidea izango du ikuskapenak egiteko baimenduak dituen eginbeharrak zuzen betetzeari dagokienez. Era berean, Udalak ahalmena izango du baimenduari ebazpen honen, erabileraren eta legearen arabera betetzea dagokiona galdatzeko.

a) Debekatuta daude honako jarduera hauek:

- Erabilitako lokalaren barruan, eta elkartearen autonomia errespetatuz, ezin izango da legez kanpoko jarduerarik edo/eta pertsonen berdintasun-printzipioen aurkako jarduerarik egin; beraz, debekatuta dago indarkeriazko edozein ekintza egitea, edo norbanakoak edo taldeak diskriminatzea, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, sexu-orientazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial dela eta.
- Irabazi-asmoekin edo banakako irabaziekin egiten direnak.
- Erabiltzeko baimenean jasotzen ez den edozein jarduera, bereziki gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri edo arriskutsutzat jotzen direnak.

b) Besteak beste, baimenduak ondorengo betebehar hauek izango ditu:

- Erabilera-ordutegiek dirauten bitartean, bizilagunei enbarazurik ez eragitea eta zonako lasaitasuna ez nahastea, indarrean dagoen araudian ezarritako neurri egokiak hartuz.

- Lokalean hirugarrenen inolako merkataritza-publizitaterik ez egitea.

- Esleitutako espazioak errespetatzea, bai eta lokala partekatzen duten beste erakunde edo elkarte batzuei ere, haien jardueren garapen normala oztopatu gabe.

- Erabilera komuneko espazioen helburua eta xedea errespetatzea.

- Elkarte edo kolektiboek modu arduratsuan zaindu beharko dituzte erabilera esklusiboko eta erabilera partekatuko lokalak, bai eta, oro har, higiezin osoa ere, hala badagokio, baita altzariak ere, eta beren kideek eta erabiltzaileek, ekintzaz edo ez-egitez, eragin ditzaketen kalteen erantzukizuna izango dute, berehala eta Udalaren baimenarekin, beharrezko konponketak eginez. Erakunde onuradunari dagokio baimenean sartutako ondasun higigarriak mantentzea eta konpontzea.

- Esleitutako espazioak osasungarritasun- eta higiene-baldintza egokietan erabiltzeko gordetzea.

- Lokaleko eta eraikineko giltzak zaintzea eta ixtea, erabiltzen duen azken erakundea denean, erabilera-baimenak besterik xedatzen ez badu. Aldi berean, baimendutako espazioen erabilera egokia zainduko dute, eta erabiltzaileen zaintza eta kontrola egingo dute.

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

- Esleitu zaion espazioaren erabilera ez lagatzea baimenduta ez daudenei.

- Sor daitekeen edozein anomalia, gorabehera edo arazo berehala jakinaraztea Tolosako Udalari. Horretarako, erreferentziazko Departamentuarekin harremanetan jarriko da elkarte edo kolektiboaren ordezkaria/solaskidea.

- Tolosako Udalari itzultzea emandako baimena iraungi edo ezeztatu ondoren lagapenaren xede diren espazio eta ondasunen erabilera, jatorrizko egoeran, erabilerak eragindako higadura izan ezik.

- Udalari uneoro baimena ematea, indarrean dagoen araudia eta erabilera edo baimentzeko erabakia betetzen direla zaintzeko jarraipen- eta ikuskapen-ahalmena balia dezan, guneetarako sarbidea erraztuz eta eskatzen den informazioa eta dokumentazioa emanez.

- Tabakoa eta/edo edari alkoholdunak eta osasunerako kaltegarriak diren beste substantzia batzuk (drogak, substantzia sorgorgarri psikotropikoak) kontsumitu eta haiek kontsumitzera bultzatzen duen publizitaterik ez instalatzea.

**SEIGARRENA.-** Ezartzea baimenaren indarraldia bukatutakoan, baimenduak kontserbazio eta erabilera egokian itzuli beharko duela eraikuntza.

**ZAZPIGARRENA.-** Agintzea baimena duenak erantzun egin beharko duela egiten duen jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz egindako kalteengatik (dela pertsonei dela ondasunei egindakoak). Alde horretatik, Udal honi nahiz hirugarrengoei egindako kalteengatik erantzungo du. Horretarako,erantzukizunezko-poliza egin behar du higiezinei, pertsonei edo hirugarren batzuei egindako kalteen aurrean erantzuteko eta gutxieneko kopurua 300.000 eurokoa izango da.

**ZORTZIGARRENA.-**Baimendunak ondasuna adierazitako helburuetarako erabiltzen ez badu, edo adierazitako betebeharretakoren bat edo legez dagozkien betebeharrak betetzen ez baditu, baimena indarrik gabe geratuko dela ezartzea.

**BEDERATZIGARRENA.-** Baimenduak Udal jabariko lokal edo higiezinak erabiltzeko baimenak edo lagapenak kudeatzeko arautegia herritarren erakunde eta kolektiboen aldekoa guztiz errespetatuko du.

## 7. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

### 2023/1254 DEKRETUA: 2023/13 FAKTURA ZERRENDA.

Idazkariak 2023/1254 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

*2023KFAK0002*

## *ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA*

***BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,*** *Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hau:*

*13. zenbaki duena, 34.430,09 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau*

## *EBAZTEN DU:*

***LEHENA.-*** *Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*13. zenbaki duena, 34.430,09 eurokoa.*

***BIGARRENA.-*** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

| | |
|---|---|
| | *Nire aurrean,* |
| *Zinegotzi delegatua* | *idazkaria* |
| *Begoña Tolosa Mendia* | *Begoña Garmendia Vázquez* |

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## 2023/1304 DEKRETUA: 2023/14 ETA 2023/15 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2023/1304 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

*2023KFAK0002*

### *ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA*

***BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak,*** *Ogasun eta Finantza Administrazioko Azpisaileko zinegotzi delegatuak emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta 2022ko otsailaren 14ko 2022/281 Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.*

*21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.*

*Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2023ko honako faktura-zerrenda hauek:*

*14. zenbaki duena, 1.665,09 eurokoa.*

*15. zenbaki duena, 389.293,19 eurokoa.*

*Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.*

*Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau*

### *EBAZTEN DU:*

***LEHENA.-*** *Onartzea honako faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:*

*14. zenbaki duena, 1.665,09 eurokoa.*

*15. zenbaki duena, 389.293,19 eurokoa.*

***BIGARRENA.-*** *Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.*

*Zinegotzi delegatua*

*Begoña Tolosa Mendia*

*Nire aurrean,*
*idazkaria*

*Begoña Garmendia Vázquez*

ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 12:05ean.**

**ALKATEA** **IDAZKARIA**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUf9552172-b03c-4373-8b9a-df799583e5a8**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110***

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2023IGBA0013-2023-05-30 batzarra sinatuta/2023-05-30 batzarra sinatuta () |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ - 15924469M
Data / Fecha: 2023/06/07 12:54:54

Sinatzailea 2 / Firmante 2: 34108801P OLATZ PEON (R: P2007600F)
Data / Fecha: 2023/06/07 17:41:07